

Bedarona, Ea eta Natxiturako Plangintza Estrategikoa

2019-2023



Helburuak

Misioa

Modu koordinatuan eta herritarren parte-hartzeaz Bedarona, Ea eta Natxituko garapen integrala lortzeko bidea marraztea.

Bisioa

0	Herritarrek beraien garapenean eragiten duten erabakiak hartzen dituzten herria, aktiboki eta modu eraginkorrean (0. ardatz estrategikoa: Herritarren parte-hartzea).
1	Papelerako eremua herritarrentzako eremu bizi bihurtu (1. ardatz estrategikoa: Papelera)
2	Herritarrei bizi kalitate ona eskaintzen dien herria: oinarrizko zerbitzu publiko eta ekipamentu publiko egokiak eskaintzen dituen eta herriko ondare natural eta kulturala zaindu eta suspertzen dituen (2. ardatz estrategikoa: Bizi kalitatea, zerbitzu publikoak eta kultura)
3	Baliabide natural eta energetikoen kudeaketa iraunkorra egiten duen herria (3 ardatz estrategikoa: Ingurumenaren zaintza eta hondakinen kudeaketa iraunkorra).
4	Garapen ekonomiko orekatuaren bidez eta ingurumena errespetatuz, kalitatezko enplegu iraunkorra lortzeko baldintzak sortzen dituen herria (4 ardatz estrategikoa: Tokiko garapen ekonomiko orekatua)
5	Herriaren izaera eta identitatea mantenduz herritarrei bertan bizi ahal izateko etxebizitzaren eskuragarritasuna eskaintzen dien herria (5 ardatz estrategikoa: etxebizitza eta lurralde identitatea)
6	Euskaraz bizi den herria (6 ardatz estrategikoa: herri euskalduna)
7	Komunikazio estrategia (7 ardatz estrategikoa: komunikazioa)

0. ARDATZ ESTRATEGIKOA: HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Eredu partehartzaile integral bat garatu, Plangintza Estrategiko honen betetzea eta birdefinitzea ahalmentzen duena.

0.1. helburu estrategikoa: Parte hartzea ahalbideratzen eta bultzatzen duten bitartekoak diseinatu eta ezarri.

0.1.1. helburu operatiboa: Iradokizunen prozesua diseinatu eta martxan jarri.

0.1.2. helburu operatiboa: Auzo batzarrak sortu.

0.1.3. helburu operatiboa: Arlokako Batzordeak diseinatu eta martxan jarri.

0.1.4. helburu operatiboa: Plenoetan herritarrek berba egiteko eta gai ordenan puntuak txertatzea bermatu.

0.2. helburu estrategikoa: Parte-hartzean herritarrak hezi eta formatu.

0.3 helburu estrategikoa: Auzolana indartu.

0.4 helburu estrategikoa: Herriko kultur, kirol eta aisialdi taldeen arteko mahaia sortu.

1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: PAPELERA

Papelerakune degradatu izatetik gune bizi izatera eraman.

1.1. helburu estrategikoa: Eraikin zaharrak bota.

1.2. helburu estrategikoa: Papelerako etorkizuna marraztu parte-hartze bidez.

1.2.1. helburu operatiboa: Parte-hartze tailerrak martxan jarri.

1.3 helburu estrategikoa: Papelerako proiektua idatzi eta lurren deskontaminaziorako eta proiektuaren exekuziorako finantziak lortu.

2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BIZI-KALITATEA, ZERBITZU PUBLIKOAK ETA KULTURA

Herritarrei bizi-kalitate ona eskaini: oinarrizko zerbitzu publiko eta ekipamentu publiko egokiak eskaini eta herriko ondare natural eta kulturala zaindu eta suspertu.

2.1 helburu estrategikoa: Haizeder eskola gune dinamizatzaile bilakatu.

2.1.1. helburu operatiboa: Haizederren lehen hezkuntza abiaraziteko pausuak eman guraso elkartarekin elkarlanean.

2.1.2. helburu operatiboa: Ibarrangelu eta Elantxobeko udalekin akordioa sinatu.

2.2. helburu estrategikoa: Zerbitzu publikoen eskaintza garatu gure herriaren tamaina eta izaera kontuan hartuta eta oinarrizko zerbitzu publikoen hobekuntza eta osagarritasuna bilatuz.

2.2.1. helburu operatiboa: Oinarrizko zerbitzu publikoak hobetu eta osatu.

2.3. Helburu estrategikoa: Aisialdirako eta kiroletarako dauzkagun instalazioak mantendu, hobetu eta osatu.

2.3.1. helburu operatiboa: Eskolondoren dinamizazioa hobetu.

2.3.2. helburu operatiboa: Natxituko bolatokiaren beharrak aztertu eta horiei erantzun.

2.3.3. helburu operatiboa: Bedaronako txokoaren beharrak aztertu eta horiei erantzun.

2.3.4. helburu operatiboa: Kale Nagusiko erreka bazterreko lurrak topagunerako zokogune publiko moduan egokitu.

2.4. helburu estrategikoa: Ekipamendu hutsak identifikatu eta aztertu (egoera fisikoa, birgaitze beharra, erabilera posibleak...) eta birgaitzeko/egokitzeko/eraikitzeko beharrak identifikatu eta proiektuak idatzi.

2.5. helburu estrategikoa: Herriko plazak eta bilguneak polito mantendu.

2.6. helburu estrategikoa: Herriaren historia ezagutarazi.

2.7. Helburu estrategikoa: Oinezbideak eta herribideak zaindu, garbi mantendu eta berriak proposatu (Ispaster eta Ibarrangelurantz).

2.8. helburu estrategikoa: Jaiak indartu eta pardaidetza anitza lortu.

2.8.1. Helburu operatiboa: Jai batzordeekin harremanak estutu.

2.9. helburu estrategikoa: Herriko artisau eta artistekin elkarlana garatu.

2.9.1. helburu operatiboa: Herrian erakusketak antolatu.

2.9.2. helburu operatiboa: Herri ondarean obrak gehitu.

2.10. helburu estrategikoa: Herriko kultur-taldeekin elkarlana garatu.

2.11. helburu estrategikoa: Berdintasun plana garatzen jarraitu.

2.12. helburu estrategikoa: Gazte-plana diseinatu eta martxak martxan jarri.

2.13. helburu estrategikoa: Edadetuentzako herri lagunkoia izateko ekintza planarekin jarraitu, edadetuen elkartarekin batera.

2.14. helburu estrategikoa: Larrialdietarako plana (uholde, sute...) idatzi eta martxan jarri.

3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: INGURUMENAREN ZAINZA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA IRAUNKORRA

Oreka ekologikoa bilatu gure baliabide natural eta energetikoen kudeaketa iraunkorra eginez.

3.1. helburu estrategikoa: Kontsumo arduratsua eta osasuntsua sustatzeko kanpainak egin.

3.2. helburu estrategikoa: Hondakinen kudeaketa hobetzeko plangintza: birziklapena %50eraino eroateko plana.

3.3. helburu estrategikoa: Landa-eremu eta ekosistema baliotsuak zaindu eta aberasteko diruz lagundu baso dibertsifikatuak eta naturatik hurre dauden landaketak. Kustodia hitzarmenak sinatu.

3.4. helburu estrategikoa: Udal eraikinetan autosufizientzia energetikoa lortzeko plana egin eta nergia berriztagarrien aldeko apustuarekin jarraitu.

3.5. helburu estrategikoa: Klima aldaketaren eraginez udalerrian izan litezkeen inpaktuei aurre egiteko programa egin.

4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: TOKIKO GARAPEN EKONOMIKO OREKATUA

Tokiko garapen ekonomiko orekatua bultzatu: garapen ekonomiko orekatua sustatu jarduera jasangarrietan oinarritua edota kutsadura gutxi sortzen dutenetan, herrian kalitatezko enplegu iraunkorra sortzea ahalbidetzen duena.

4.1. helburu estrategikoa: Bertoko produktuak eta ekoizleak lagundu.

4.1.1. helburu operatiboa: Azokak antolatu.

4.1.2 helburu operatiboa: Ikastaroak eta tailerrak antolatu: agroekologia, ortugintza, basogintza, kontserbak, sendabelarrak...

4.1.3. helburu operatiboa: Kontsumo taldeak bideratu.

4.1.4. helburu operatiboa: Sentsibilizazio kanpainak egin.

4.2. helburu estrategikoa: Herritarren kontratazioa diruz lagundu.

4.3. helburu estrategikoa: Co-working espazio bat egokitu.

4.4. helburu estrategikoa: Garapen turistiko iraunkorra sustatu gure ondare naturala eta kulturala balioan jarriz eta horrela lehenengo sektoreko jarduera ekonomikoa eta zerbitzuen jarduera bateragarri egin.

4.4.1. helburu operatiboa: Komunikazio plana diseinatu eta egikaritu.

4.4.2. helburu operatiboa: Ibilbideak garbi mantendu eta seinalizazioak egoki.

4.4.3. helburu operatiboa: Turismo bulegoa zabaldu.

4.4.4. helburu operatiboa: Herriko aztarna arkeologikoak identikatu, berreskuratu eta egoki mantendu (ola, teileriak, karobiak, iturriak, lexibatokiak...)

4.5. helburu estrategikoa: Egurrarentzat alternatibak bilatu espezie eta produkzio eredu desberdinak aztertuz eta bideragarritasun ekonomikoak analizatuz.

4.5.1. helburu operatiboa: Aholkularitza eskaini.

4.6. helburu estrategikoa: BIZISAREekin elkarlanean aritu eskualdeko garapen ekonomikoari begira.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ETXEBIZITZA ETA LURRALDE IDENTITATEA

Herriaren izaera eta identitatea galdu gabe herritarrei bertan bizi ahal izateko etxebizitzaren eskuragarritasuna eskaini.

5.1. helburu estrategikoa: Urte osorako alokairua sustatu.

5.1.1. helburu operatiboa: Sentsibilizazio kanpaina egin.

5.2. helburu estrategikoa: Alde zaharraren eraberritzea sustatu.

5.3. helburu estrategikoa: Etxebizitza tasatuak kudeatu.

5.3.1. helburu operatiboa: De La Rivarekin negoziatu Bedaronako etxebizitzetzi irtenbidea emateko.

5.3.2. helburu operatiboa: Eskuhartze irizpideak finkatu etxe tipologiak familien beharriak ase ditzan.

5.4. Helburu estrategikoa: Baserri etxeetarako ordenantza egin etxebizitza bi ateratzeko modukoak zerrendatuz.

6. ARDATZ ESTRATEGIKOA: HERRI EUSKALDUNA

Euskararen ezaqutza eta erabilera handitu.

6.1. helburu estrategikoa: Udaletxean euskera eguneroko tresna bihurtu.

6.1.1. helburu operatiboa: Ordezkarioran hizkuntz lidergoa landu.

6.1.2. helburu operatiboa: Euskara plana garatu.

6.2. helburu estrategikoa: Euskalduntzea doakoa izateko diru-laguntzak eman.

6.3. helburu estrategikoa: Euskarazko hedabideak diruz lagundu.

7. ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA

Udalaren komunikazio estrategia diseinatu eta garatu.

7.1. helburu estrategikoa: Komunikazio plana diseinatu eta egikaritu.

7.1.1. helburu operatiboa: Udaletik herrira eta herritik udalerako komunikazio tresnak sortu.